

ERRADIODIAGNOSTIKOKO MEDIKU ESPEZIALISTEN LAN BURTSA BAT EGITEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1.- DEIALDIAREN ESPARRUA

1.1 Xedea:

Deialdi honen xedea da, Osatek, SAn, erradiodiagnostikoko mediku espezialisten ordezkapenak eta halabeharrak betetzeko lan-burtsa bat egiteko mediku espezialistak hautatzea.

1.2 Erreferentziazko araudia:

Deialdiaren araudiak, funtsean, honako esparru hau du:

- a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen lehen xedapen gehigarria aplikatzea, lege horretan jasotako printzipioetan oinarrituta eta, bereziki, enplegu publikoa eskuratzeko printzipioak betez, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak aintzat hartuta; bai eta deialdien eta horien oinarrien publizitatea eta gardentasuna, eta hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna, hautaketa-organoen jardunaren independentzia eta zuhurtasun teknikoa, hautaketa-prozesuen eta garatu beharreko funtzioen edo zereginen arteko egokitzapena eta arintasuna ere; hori guztia, hautaketa-prozesuen kaltetan izan gabe.
- b) Martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegilea, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- c) Osateken hitzarmen kolektiboa.

1.3 Antolamendua:

Osatek, Eusko Jaurlaritzaren sozietate publiko bat da, ekainaren 9ko 159/1992 Dekretuaren bidez eratutakoa. Sozietate horren estatutuen 1. artikuluan zehazten denez, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren berezko baliabide instrumentala eta zerbitzu teknikoa da, bai eta haren mendeko organo autonomoena eta gainerako erakunde publikoena.

Osateken estatutuen 3. artikuluan ezartzen denez, haren sozietate-xedea izango da, besteak beste, euskal osasun- eta gizarte-sistemari laguntzeko zerbitzuak, batez ere korporazio-izaera dutenak edo goi-mailako teknologiko prozedurak beharrezkoak dituztenak, eskaintzea eta hornitzea.

1.4 Lanpostua:

Deialdi honen profila eta oinarriak Osateken web-orrian (www.osatek.net) eta egoitza korporatiboaren iragarki-taulan argitaratuko dira.

Zerbitzu-harremana erakundearen estatutuetan ezarritako edozein esparrutan gauzatuko da.

2.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

2.1 Baldintza orokorrak:

Oinarri honetan zerrendatutako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean beteta eduki beharko dira, eta kontratazioaren unera arte ere horiei eutsi beharko zaizkie.

- a) Europar Batasuneko estatu kideetako baten nazionalitatea izatea, edo langileen joan-etorri askea aplikagarria zaion Estatu bateko nazionalitatea izatea, Europar Batasunak burututako eta Estatu espainiarrak berretsitako nazioarteko itunen aplikazioa betez.
- b) Lanpostuari dagozkion funtzioak normaltasunez betetzea eragozten ez duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.
- c) Diziplina espedienteren baten bidez inolako Administrazio Publikotik kendu ez izana, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.
- d) Bateriaezintasun edo ezgaitasun legezko kausaren baten barne ez egotea, Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunak arautzen dituen 53/1984 Legeak jasotzen dituen xedapenei jarraikiz.
- e) Gaztelania menperatzea edo hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

2.2 Baldintza bereziak:

2016ko ekainaren 1ean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak luzatutako Medikuntza eta Kirurgiako lizentziadunaren eta Erradiodiagnostikoko espezialistaren titulazioa edukitzea edo lortzeko baldintzetan egotea eta kontratazioaren unera arte berorri eustea.

Atzerriko unibertsitateek emandako titulazioen kasuan, tituluek Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak homologatuak izan behar dute data horretan.

3. PARTE HARTZEKO ESKAERAK:

3.1 Eskaera:

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera II. eranskineko ereduari jarraituz egingo da.

Eskaerarekin batera, izangaiek honako agiriak aurkeztu beharko dituzte ezarritako epean:

- Lanpostuaren profilari buruzko eranskinean jasotzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen dutenak.
- Titulu akademikoak.
- Betetako lanpostuak.
- Esperientzia profesionala.
- Adieraztea egoki deritzon edozein ikasketa, ikastaro, argitalpen, txosten, hizkuntza ezagutza edo/eta bestelako edozein meritua.

Osateken Kudeaketa Zuzendaritzari zuzendutako eskaerak Osateken edozein unitatetan aurkeztu ahal izango dira, edo Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua 48011 Bilbo helbidean kokatutako egoitza korporatibora igorri, nahiz Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan eman.

3.2 Eskaerak onartzea

Izangaiek 7 eguneko epea izango dute. Epe horri hasiera emango zaio iragarkia argitaratzen den egunaren hurrengo egunean.

3.3 Oinarrien aurkako errekurtsua

Interesdunek deialdiaren oinarrien aurkako errekurtsua aurkez dezakete Kudeaketa Zuzendaritzaren aurrean 10 eguneko epean, argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Errekurtsuaren ebazpena gehienez 10 eguneko epean emango da, eta ebazpena eman arte deialdia eten egingo da. Epea igaro eta ebazpen garbirik ez badago, errekurtsua atzera bota dela ulertuko da, eta deialdia berriz martxan jarriko da. Edonola ere, eskaerak aurkezteko epea ez da etengo, eta aurretik ezarritakoa izaten jarraituko du.

3.4 Parte-hartzaileen zerrenda

Eskaerak aurkezteko epea agortuta, www.osatek.net web-orrian eta egoitza korporatiboaren iragarki-taulan deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda jendaurrean jarriko da.

Eskabideetan emandako informazio guztiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, informazio hori fitxategi batean sartuko da eta fitxategi hori hautaketa-prozesua kudeatzeko bakarrik erabiliko da. Fitxategi horren erabilpenak eta funtzionamenduak abenduaren 13ko 15/1999 LOan xedatutakoa beteko dute. Hautaketa-prozesu honetan eskabideak aurkezten dituztenek baimena ematen dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan aipatutako moduan eta helburuetarako tratatuak edo/eta jakinaraziak izan daitezen.

Beharrezko konfidentzialtasuna bermatze aldera, izangaia identifikatuko duen nortasun agiri nazionalaren edo antzekoaren zenbakia argitaratuko da soilik. Behin-behineko zerrenda argitaratzen den unetik, erreklamazioak aurkezteko 5 eguneko epea irekiko da, eta erreklamaziorik ez balego, zerrenda behin betiko izatera pasatuko da.

Onartutakoen behin-behineko zerrendaren erreklamazioak deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko leku berean aurkeztuko dira.

4.- HAUTAKETA PROZESUA:

4.1 Prozesua:

Lanpostuaren profilari hobekien egokitzen zaien izangaia hautatzeko egingo da hautaketa-prozesua.

4.2 Hautaketa-organoa:

Hautespen-organo bakoitza zuzendari gerentearen xedapen bidez izendatuko da, eta kide hauek osatuko dute:

Presidentea: zuzendari gerentea edo ordezko izendatzen duena.

Kideak: Kalitateko teknikaria.

Lurraldeko arduradun bat.

Enpresa Batzordeko kide bat.

Idazkaria: Giza Baliabideetako arduraduna, hitza izango du, baina botorik ez.

Hautespen-organo horren bilkura guztietara Enpresa Batzordean ordezkari hitza duen sindikatu bakoitzeko kide bat ere bertaratu ahal izango da, prozesuaren behatzaile gisa –hitza izango du, baina botorik ez–.

Hautespen-organoko kideek xede den kategorian sartzeko eskatutako maila akademikoaren titulazio bera edo goragokoa izan beharko dute.

Hautespen-organoa lehendakariaren aginduz eta idazkariak deituta bilduko da; balioz osa dadin, presidentez eta idazkariak gain, kideen erdiak gehi bat, gutxienez, bertaratu beharko dira.

Erabakiak bertaratu diren kideen botoen gehiengoarekin hartuko dira. Hautespen-organoko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Presidentearen kalitate-botoaren bidez ebatziko dira berdinketak.

Hautespen-organoak autonomia funtzional osoz jardungo du; prozeduraren legezkotasuna zaindu beharko du eta objektibotasuna bermatzeaz arduratu beharko du. Oinarri hauek aplikatzean sortutako zalantza guztiak argitu beharko ditu, eta deialdian jaso ez diren kasuetarako zer irizpide ezarri behar den zehaztuko du.

4.3 Prozesuaren faseak:

Hautaketa-prozesua bi fasetan egingo da:

1. fasea: Esperientzia profesionalaren, prestakuntzaren eta hizkuntzen balorazioa: 60 puntu gehienez.

A) Esperientzia profesionala (40 puntu gehienez): Osakidetzako osasun-zerbitzuetako erakundeetan, Gizarte Segurantzaren edo autonomia-erkidegoetan nahiz edozein administrazio publikotan erradiologoaren kategorian zerbitzugintzan emandako hilabete bakoitzeko, eta Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko osasuneko zerbitzugintzan emandako hilabete bakoitzeko ere: 0,30 puntu.

Antzintasuna hilabete kopurua kontuan hartuta kontatuko da. Hilabetetzat 30 egun naturalaren multzoa hartuko da. Zenbaketa orokorra lan egindako egun naturaletan oinarrituta egingo da, eta zenbaketa horretatik hilabetetik behera arrastoak baztertuko dira.

Ez da esperientzia profesionaltzat zenbatuko BAMEko prestakuntzaldia.

B) Prestakuntza: (12 puntu gehienez)

B.1. Zentro publikoren batean RMan egindako txandaketa:

3 puntu emango zaizkio Osateken edota Osakidetzako osasun-zerbitzuetako erakundeetan, Gizarte Segurantzaren edo autonomia-erkidegoetan nahiz edozein administrazio publikotan, eta Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko osasun-zerbitzuetan ere RMan txandaketako hilabete kopuru handiena egin izana egiaztatzen duen izangaiari; eta gainerako puntuak proportzionalki aplikatuko dira.

B.2. Eskatutako lanpostuari lotutako ikastaro eta kongresuetan parte-hartzea, 2016ko maiatzaren 31a baino bost urte lehenago burutu baldin badira: 2 puntu gehienez.

Eduki bereko eta goian aipatutako aldian burututako ikastaroak aurkezteko orduan, ordu kopuru handiena jasotzen duena zenbatuko da soilik.

Ikastaro guztiak dagokien ziurtagiriaren bidez egiaztatuko behar dira.

Adierazten den iraupeneko ikastaro bakoitzeko:

20-49 ordu	0,4 puntu
50-99 ordu	0,6 puntu
100 edo gehiago	1 puntu

Ikastaroetako ziurtagirietan soilik kreditu kopurua agertzen denean, kreditu bakoitzeko 0,2 puntu emango dira.

Ikastaroen ziurtagirietan ordu kopurua eta kreditu kopurua jasotzen badira, kredituen kopurua lehenetsiko da.

Erakunde ofizialek, Unibertsitateak, osasun-erakundeek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta sozietate zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak baloratuko dira, edozein administrazio publikorekin sinatutako etengabeko prestakuntzarako akordioen indarrez emandako eta egiaztatutako ikastaroak ere; baldin eta titulazio ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barruan ez badaude.

B.3. Ezagutzaren hedapena: 3 puntu gehienez.

Eskatutako lanpostuaren kategoriari lotutako lan zientifiko, komunikazio, hitzaldi, eta abar argitaratzeagatik, jarraian adierazitakoaren arabera:

Nazio-mailako irakasle gonbidatua: 1 puntu

Nazioarteko irakasle gonbidatua: 2 puntu

Kongresu nazionalean komunikazioa edo posterra (lehen egilea): 0,5 puntu

Nazioarteko kongresuan komunikazioa edo posterra (lehen egilea): 1 puntu

Argitalpen nazionala (lehen egilea): 1,5 puntu

Nazioarteko argitalpena (lehen egilea): 3 puntu

Argitalpen nazionala (beste egile batzuk): 1 puntu

Nazioarteko argitalpena (beste egile batzuk): 2 puntu

B.4. Ikerketa: 4 puntu gehienez

Gaitasun ikertzailea: 1 puntu

Doktoretza-tesia: 3 puntu

Saiakuntza klinikoak: 2 puntu

Ikerketa-proiektuak: 2 puntu

Lantaldeetan edo hobekuntzan parte-hartzea: 1 puntu

C) Hizkuntzak: (8 puntu gehienez).

Ingelesaren eta euskararen ezagutza ondorengo puntuazioari jarraituz baloratuko da:

Euskara: 5 puntu gehienez

Ingelesa: 3 puntu gehienez

Euskara:

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	PUNTUAK
C1	5
B2	3
B1	2

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskar-maila hizkuntza-tituluen eta .ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko 47/2012 Dekretuan ezarritakoak erkatuko zaizkie akreditazio horiei.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	PUNTUAK
C1	3
B2	2
B1	1

2. fasea. Elkarrizketa pertsonala. 40 puntu gehienez:

Fase honen helburua lanpostuari lotuta izangaien ebaluazioa osatzea da, ondorengo irizpideen arabera:

- Lanpostuaren profil psikoprosesional eta gaitasunarekiko egokitzapena
- Antolaketaren kulturaren inguruko motibazioa eta inplikazioa:

Honako alderdiak aintzat hartuko dira:

RMan lan egiteko interesa

Berehala lanean hasteko aukera

Talde-lanaren aurreko jarrera pertsonala eta aurretiko joera

Komunikatzeko gaitasuna eta enpatia profesionaia

Goiz edo arratsaldeko lanera egokitzeko ahalmena

Lurralde desberdinetako beste unitateei laguntza emateko ahalmena

Lantokia hautatzeko baldintzatzaileak, ospitalea versus anbulatorioa.

Interes zientifikoa.

Elkarrizketa lanbide-historialean, esperientzia profesionaian eta xede den lanpostuari lotuta izangaiak dituzten itxaropenetan oinarrituko da.

Hautaketa-organoak egoki iritzi gero, beharrezkotzat jotzen duen nahi adina proba egin ahal izango du, izangaia egokia den eta lanpostuari hobekien nola egokitu daitekeen jakite aldera.

4.4 Izangaien puntuazioa

Hautaketa-prozesua amaituta, hautaketa-organoak izangaien zerrenda osatuko du, puntuazio-ordenaren arabera.

4.5 Emaiza eta argitalpena

Emaiza www.osatek.net web-orrian eta egoitza korporatiboaren iragarki-taulan jendaurrean jarriko da.

Eskabideetan emandako informazio guztiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, informazio hori fitxategi batean sartuko da eta fitxategi hori hautaketa-prozesua kudeatzeko bakarrik erabiliko da. Fitxategi horren erabilpenak eta funtzionamenduak abenduaren 13ko 15/1999 LOan xedatutakoa beteko dute.

Beharrezko konfidentzialtasuna bermatze aldera, izangaia identifikatuko duen nortasun agiri nazionalaren edo antzekoaren zenbakia argitaratuko da soilik. Beharrezko konfidentzialtasuna bermatze aldera, izangaia identifikatuko duen nortasun agiri nazionalaren edo antzekoaren zenbakia argitaratuko da soilik; eta interesdunek errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Kudeaketa Zuzendaritzaren aurrean, 10 eguneko epean, emaitza argitaratzen den egunetik hasita.

Errekurtsuak baztertu edo aintzat hartzeko, izangaien behin betiko zerrenda puntuazio-ordenaren arabera argitaratuko da.

5.- DOKUMENTUAK AURKEZTEA.

Behin betiko dokumentazioa

Hautatutako pertsonen ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte hogeit hamar egun naturaleko epean, hautaketaren jakinarazpena jasotzen den egunetik kontatzen hasita:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo nazionalitate espainiarra ez badu, jatorrizko herrialdeari dagokion agiri nazionalarena edo pasaportearena.
- b) Eskatutako titulu akademikoaren edo titulua eskuratzeko beharrezko ikasketa guztiak burutu dituela egiaztatzen duen ziurtagiri akademikoaren fotokopia konpultsatua.
- c) Lanpostua betetzeko 2.1.d) oinarrian aurreikusitako gaitasun funtzionala duela egiaztatzen duen ziurtagiria; laneko medikuntzan espezializazioa duen Medikuntzako Lizentziatu batek egin beharko du ziurtagiria.
- d) Diziplina espedienteren baten bidez inolako Administrazio Publikotik edo Autonomia Erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoetatik kendu ez izana, ebazpen judizialen bidez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo kendu edo ezgaitutako lan-kontratadun langileen kasuan betetzen zituen antzeko funtzioak betetzeko guztiz edo modu berezian ezgaituta ez dagoela jasotzen duen ardurapeko adierazpena.

Fotokopia guztiak konpultsatuta aurkeztu behar dira eta ardurapeko adierazpenak notario publikoaren aurrean edo Osatekeko funtzionario edo kideren baten aurrean egin beharko dira. Azken kasu honetan, izangaia ez du inolako kosturik izango.

Dokumentaziorik eza

Ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiriak aurkezten ez dituzten izangaiek, edo agiri horiek aztertu ondoren bigarren oinarrian adierazitako baldintzetariko bat betetzen ez dutela ondorioztatuko balitz, kontratazioa ez da gauzatuko eta bere jarduerak baliogabetu egingo dira, hasierako eskaeran faltsukeria egin izanagatik merezi dezaketen erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

I. ERANSKINA: MEDIKU ERRADIOLOGO LANPOSTUAREN PROFILA

1. Funtzioak:

- Diagnostikoaren miaketak dagokien irudiaren bidez ikuskatu eta haien txostena egitea.
- Prestakuntza, ikerketa eta irakaskuntzako lanetan parte hartzea.
- Lurralde-buruak agindutako laguntza- eta zientzia-prozesuei dagozkienak.
- Ematen zaizkion lan-txandetan laguntza-prozesua ikuskatzea.
- Bere lanari lotutako ingurumen-alderdiak kudeatzeko orduan laguntza ematea (hondakinen sorrera eta baliabideen kontsumoa).
- Unitate bakoitzeko ingurumeneko arduradunari unitateetako hondakinak kudeatzerakoan sor daitekeen edozein irregulartasunen berri ematea.

2. Ordainketa:

- Hitzarmen Kolektiboak finkatutako ordainketa, bai ordainketa finkoei dagokienez eta baita ordainketa aldakorrei dagokienez ere, kategoria profesional bereko gainerako erradiologoek baldintza beretan.

